

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko apirilaren 30etik maiatzaren 06rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/05/03

- LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak. Ebazpena, 2022ko apirilaren 22koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez zuzentzen diren 2021eko uztailaren 19koaren akatsak. Horren bidez, pasten, paperaren eta kartoiaren industriaren Estatuko hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen da. **7165 xedapena - 1 or.**

2022/05/05

- LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak. Ebazpena, 2022ko apirilaren 22koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den ile-apaindegi, edertasun-institutu eta gimnasioetarako hitzarmen kolektiboa. **7390 xedapena - 26 or.**
- LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak. Ebazpena, 2022ko apirilaren 22koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren metalaren sektoreko industriaren, teknologia berrien eta zerbitzuen Estatuko IV. hitzarmen kolektiboaren aldaketa eta akats-zuzenketari buruzko akordioak. **7391 xedapena - 4 or.**

2022/05/06

- LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak. Ebazpena, 2022ko apirilaren 22koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Estatuko Loteria eta Apustuen Sozietate Estatalaren Estatuko hitzarmen kolektiboaren 2022rako luzapenari eta soldata-berrikuspenari lotutako akordioa. **7471 xedapena - 2 or.**
- LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak. Ebazpena, 2022ko apirilaren 22koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den desinfekzio, desintsektatze eta desratizazioaren sektorearen Estatuko hitzarmen kolektiboa. **7475 xedapena - 28 or.**
- LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak. Ebazpena, 2022ko apirilaren 22koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren janari pasten industrietarako Estatuko hitzarmen kolektiboko 2021eko behin betiko ordainsarien taulak. **7476 xedapena - 4 or.**
- LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak. Ebazpena, 2022ko apirilaren 22koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren higiezin

kudeaketarako eta bitartekaritzarako enpresen Estatuko VII. hitzarmen kolektiboko 2021eko behin betiko ordainsarien taulak eta 2022ko hasierakoak. [7477 xedapena - 4 or.](#)

- LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak. Ebazpena, 2022ko apirilaren 25ekoa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den eraikuntzaren sektoreko VI. hitzarmen kolektibo orokorra aldatzen duen akta. [7478 xedapena - 3 or.](#)

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/04/30

- GORTE NAGUSIAK. Senatua. Erregelamendua. Senatuaren Erregelamenduaren erreforma, 92. artikulua aldatzen duena. [6974 xedapena - 2 or.](#)
- BARNE MINISTERIOA. Mugak. INT/372/2022 Agindua, apirilaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen den uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua. Agindu horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, irizpideak aldatzen dira hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialdeetara nahitaezkoak ez diren bidaiak galarazteko behin-behineko murrizketa ezartzeko, ordena publikoaren eta osasun publikoaren arloko arrazoiengatik. [6977 xedapena - 2 or.](#)

2022/05/02

- GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. Aseguruak. ETD/374/2022 Agindua, apirilaren 25ekoa, berraseguru-sistema ezartzen duena Aseguruen Konpentsaziorako Partzuergoaren kargura, kalte nuklearren ondoriozko erantzukizun zibilaren alorrean. [7002 xedapena - 7 or.](#)

2022/05/04

- OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. Sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. HFP/379/2022 Agindua, apirilaren 28koa, zeinaren bidez onesten diren sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ereduak, establezimendu iraunkorrei eta Espainiako lurraldean dauden atzerrian eratutako errenta esleipenaren araubideko entitateei dagokienez, 2021eko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 bitartean hasitako ezarpen aldietarako, instrukzioak adierazten diren aitorpena eta sarrera egiteko prozedurei dagokienez, eta baldintza orokorrak eta bide elektronikotik aurkezteko prozedura ezartzen diren. [7188 xedapena- 201 or.](#)

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA.** Enplegu politika. Ebazpena, 2022ko apirilaren 26koa, Enpleguaren eta Ekonomia Sozialaren Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2022ko apirilaren 19ko Ministroen Kontseiluaren akordioa, zeinak onesten duen 2022rako Enplegu Politikarako Urteko Plana, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Enpleguaren Legearen testu bateginaren 11.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. [7189 xedapena - 213 or.](#)
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA.** Airearen kutsadura. Dirulaguntzak. 309/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, zeinaren bidez konpentsazio-mekanismoa ezartzen den 2021-2030 aldian karbono-ihes nabarmeneko arriskua duten sektore eta azpi-sektoreentzako zeharkako kostuentzat. [7190 xedapena - 27 or.](#)
- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA.** Segurtasun Eskema Nazionala. 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena. [7191 xedapena - 90 or.](#)
- **JUSTIZIA MINISTERIOA.** Auzitegietako prokuradoreak. Arantzelak. 307/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, zeinaren bidez aldatzen den auzitegietako prokuradoreen eskubide arantzela onesten duen azaroaren 7ko 1373/2003 Errege Dekretua. [7186 xedapena - 3 or.](#)

[2022/05/05](#)

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.** Lege-gordailua. 8/2022 Legea, maiatzaren 4koa, Lege-gordailuaren uztailaren 29ko 23/2011 Legea aldatzen duena. [7311 xedapena - 10 or.](#)
- **GORTE NAGUSIAK.** Premiazko neurriak. Ebazpena, 2022ko apirilaren 28koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. Horren bidez, premiazko neurriak hartzen dira Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren esparruan. [7312 xedapena - 1 or.](#)
- **GORTE NAGUSIAK.** Premiazko neurriak. Ebazpena, 2022ko apirilaren 28koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila bosgarren belaunaldiko sareen eta komunikazio-zerbitzu elektronikoen segurtasuna bermatzeko baldintzei buruzko martxoaren 29ko 7/2022 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. [7313 xedapena - 1 or.](#)
- **GORTE NAGUSIAK.** Premiazko neurriak. Ebazpena, 2022ko apirilaren 28koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila apirilaren 5eko 8/2022 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. Horren bidez, premiazko neurriak hartzen dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Sistemaren lan-kontratazioaren esparruan. [7314 xedapena - 1 or.](#)
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA.** Aireko nabigazioa. 310/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, zeinaren bidez osatzen den aire-espazioko aldaketak eta hegan egiteko prozedura zibilak onesteko araubide juridikoa. [7319 xedapena - 17 or.](#)
- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA.** Altxor Publikoko Funttsak. Egoera kontua. ETD/389/2022 Agindua, apirilaren

29koa, zeinaren bidez arautzen diren Estatuko Administrazio Orokorren, haren erakunde autonomoen eta sektore publiko-administratiboko gainerako erakundeen kontu motak, baldin eta haien finantza-errekurtsoek Altxor Publikoa osatzen badute, eta kontu horien baimentze-, irekiera- eta erabilera-araubidea ezartzen den. **7320 xedapena - 11 or.**

2022/05/06

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA.** Gailu elektriko eta elektronikoak. PCM/399/2022 Agindua, maiatzaren 5ekoa, zeinaren bidez aldatzen den gailu elektriko eta elektronikoaren zenbait substantzia arriskutsuren erabilera-murrizketei buruzko martxoaren 22ko 219/2013 Errege Dekretuaren IV. eranskina. **7420 xedapena - 8 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/05/02

- **TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA. EBAZPENA,** 2022ko apirilaren 25ekoa, Turismo eta Ostalaritzako zuzendariarena, zeinaren bitartez jendaurrean jartzen baita bidaiaria-agentziei buruzko Dekretua bigarrenez aldatzeko Dekretu-Proiektua. **1859 xedapena - 1 or.**

2022/05/06

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** 1/2022 FORU DEKRETU-ARAUUA, apirilaren 5ekoa, egungo krisi energetikoa, prezioen gorakada eta Ukrainaren inbasioa izaten ari diren inpaktu ekonomikoa arintzeko premiazko zerga neurriak onestekoa. **1932 xedapena - 7 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2022/05/04

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 7/2022 Zerga premiazko araugintzako dekretua, apirilaren 26koa. Onestea energiaren arloko zerga neurriak eta beste zerga neurri batzuk onetsi zituen otsailaren 1eko 1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren aldaketa. **1105 xedapena - 3 or.**
- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 16/2022 Foru dekretua, apirilaren 26koa.

Onespena ematea Kontseiluaren otsailaren 27ko 17/2007 Foru Dekretua aldatzeari. [1107 xedapena - 2 or.](#)

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 17/2022 Foru dekretua, apirilaren 26koa. Onestea COVID-19ak eragindako eraginen ondorioz laguntzen epe esparruan sartzen diren abeltzaintza eta nekazaritza sektoreari laguntzeko aparteko laguntzen aldi baterako araubideko oinarri arautzaileak, 2021-2022 aldian. [1125 xedapena - 13 or.](#)

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2022/05/05

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 243/2022 Foru Agindua, maiatzaren 3koa, gasolio profesionalaren kontsumoarengatik hidrokarburoen gaineko zerga partzialki itzultzeko prozedura ezartzen duena. [2777 xedapena - 13 or.](#)
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 244/2022 Foru Agindua, maiatzaren 3koa, produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobariaren aurrerakina eskatzeko prozedura arautzen duena. [2778 xedapena - 3 or.](#)

2022/05/06

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 242/2022 Foru Agindua, apirilaren 29koa, Ogasun eta Finantza Departamentuak jaulkitako efektu tinbratuak trukatzeko baldintzak eta prozedura arautzen dituena. [2704 xedapena - 2 or.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2022/05/03

- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2022/694 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2022ko maiatzaren 2koa, zeinaren bidez aldatzen den 2016/403 (EB) Erregelamendua, errepide bidezko garraiolaria ohorea galaraztea ekar dezaketen Batasuneko arauen arau-hauste larri berriei dagokienez. [L 129/22 xedapena- 11 or.](#)
- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2022/695 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2022ko maiatzaren 2koa, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/22/EE Zuzentarauaren aplikazio-xedapenak ezartzen diren, garraio-enpresen arriskuen sailkapena kalkulatzeko formula komunari dagokionez. [L 129/33 xedapena- 4 or.](#)

2022/05/04

- Datuen Babeserako Europako Gainbegiratzaillearen Ebazpenaren Laburpena, Batzordearen bi Erabaki Proposamenei dagokienez. Horien bidez, Estatu kideei baimena ematen zaie, Europar Batasunaren interesean, Ziberdelinkuentziari buruzko Hitzarmenaren bigarren Protokolo gehigarria sinatu eta berresteko, zeina kooperazio indartuari eta froga elektronikoak agertzeari buruzkoa den. (Ebazpen horren testua osorik kontsulta daiteke SEPDreren webgunean, ingelesez, frantsesez eta alemanez: www.edps.europa.eu). [C 182/15 xedapena- 5 or.](#)

2022/05/05

- Akats-zuzenketa, honako erregelamendu honena: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/399 (EB) Erregelamendua, 2016ko martxoaren 9koa, zeinaren bidez Batasuneko Arau Kode bat ezartzen den pertsonen muga-zeharkatzerako (Schengen Mugen Kodea) (Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, L 77, 2016ko martxoaren 23koa). [L 131/14 xedapena- 1 or.](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - BILBAO